

# Abarak

GORKA BEREZIARTUA

## Kondenaz eta matxinadaz

*Nada.* Jean-Patrick Manchette (1972).

AEBEN PARISKO ENBAXADOREA bahituko du talde armatu anarkista batek. Nada izenez bataiatu dute banda eta elkarrekin batere antzik ez duten pertsonaien *tutti fruttia* da: Épaulard mundu osoan borrokan ibilitakoa da eta ez zaio idealismo handirik geratzen; Treuffais, gizarteaz nazkatutako intelektuala; Cash, *femme fatale* militantea. Eta abar. Jean-Patrick Manchettek bikain marraztu zituen nobela beltz honetako pertsonaien ertzak, idazketa molde behaviourista erabiliz: narratzaileak pertsonaien portaerak erakusten ditu, haien iziera ulertzeko lain, baina irakurle bakoitzari bere irudia osatzeko adina oxigeno emanez.

Idazlea, nobela egin zuenerako, aski desenkantatuta zegoen borroka armatu iraultzailearekin. Igartzen da. Urrun daude Nadako militanteak ezeren eredu izatetik eta beraien borrokak ondorio bakarria izango du: poliziaren balapean denak odolustuta hiltzea.



Jean-Patrick Manchette idazlea.

Denak? Ez. Buenaventura izeneko pertsonaiak hanka egitea eta ezkutatzea lortuko du. Magnetofonia hartuta talde armatuaren epitafoia grabatuko du, gero prentsara bidaltzeko:

«— Oker nengoen —esan zuen bat-batean—. Ezkerreko terrorismoak eta Estatu terrorismoak, izateko arrazoi diferentek badituzte ere, elkarrekin osatzen dituzte... —hemen zalan-tza egin zuen—, ergelentzako tranpa beraren bi kurrikak —errematatu zuen eta hizketan segi—. Noski, erregimenak terrorismoaren kontra borrokatzen du, defendatu egiten da. Baina sistema ez, ez da defendatzen, akuilatu egiten du, publizitatea ematen dio. (...) Estatuak amets egiten du herio-amaiera arranditsu eta beldurgarriarekin, indar polizial eta mertzenarioek nihilismoaren komandoen kontra antolatutako erabateko gerra zibilarekin. Matxinatzen direnei jarritako tranpa da, ni erori naizen tranpa. Eta ez naiz bakarria izango. Eta horrek asko izorratzen ditu».

Buenaventurak zinta hori grabatuta borrokarako esparru berria zabaltzen du ordea: narratibarena. Nada taldearen motibazioak, oinarriak eta ekintzak kontatuz sistemaren kontra aritzeko zeukaten zilegitasuna ateratzen da argitara, auke-ratutako bideak gorabehera.

«— Terrorismoaren kondena —esan zuen Buenaventurak mikrofonotik— ez da matxinadaren kondena, matxinatzeko deia baizik».

Esaidazue, ez al du esaldiak gure testuingururako balio? ■



txotxongiloak, ipuin kontalariak, magia, antzerkia...

### MARTXOA

- 03/01 18:00etan Begoñako udaldegian  
**Peio Zabala ipuin antzeztua**
- 03/02 18:00etan Bilboko Zurbaran eskolan  
**Patata Tropikala Antzerkia**
- 03/03 18:00etan Bilboko Bilborock aretoan  
**De Bote en Bote**
- 03/05 11:00etan Deustuko Bidarte udaldegian  
**Antzezikizuna Ginol Taldea**
- 03/08 18:00etan Begoñako udaldegian  
**Zurrunmuru Taldea**
- 03/09 18:00etan Bilboko Zamakola eskolan  
**Kidam Magoa**
- 03/10 18:00etan Bilboko Tiboli eskolan  
**Xalto Pailazoa**
- 03/12 11:00etan Deustuko Bidarte udaldegian  
**Ines Bengoa ipuin kontaketa**
- 03/15 18:00etan Begoñako udaldegian  
**Goloka Taldea**
- 03/17 18:00etan Bilboko Bilborock aretoan  
**Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Antzerkia**
- 03/19 11:00etan Deustuko Bidarte udaldegian  
**Tünbili Ttanbala Taldea**





Bilbao



euspara



BFA DFB



bbk



hamailka